



2001EKO URRIAREN 25EKO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bateko urriaren hogeita bostean, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Igor Sarriegi Zumarraga, Inazio Estenso-ro Eskisabel, Gorka Lamy Intsausti, Arantxa Zumelaga Agirre, Irantzu Amundarain Irizar, Jon Agirre Garmendia eta Urko Irastortza Aldanondo.

José Antonio Dopazo Martin eta José Luis Otamendi Romero zinegotziak ez dira bertaratu.

Aktan adieraziko da Joseba Hernández Madinabeitia zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak adierazten du bi mozio aurkeztu dituela EHk eguneko gai zerrendatik kanpo, bata eguneko zerrendaren barruan dagoen mozioaren gai berari buruz eta bestea pre-soen sakabanaketaren inguruan eta hauek osoko bilkura honetan tratatu behar diren ala ez planteatu ondoren, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuz, mozio hauek presakazko bezala tratatzea erabakitzen du.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutako onspenera aurkeztzen da 2001eko urriaren 4an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri emten du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETAK.-

Alkateak datorren urterako ordenantza fiskalei buruzko aldaketa proposamenaren azalpena egiten du. Honako zehaztasun hauek ematen ditu:

- Gipuzkoako Foru Aldundiak, uztailaren 6ko 24/2001 Foru Arauaren bidez, Hirilur-
ren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren gehieneko karga tasa %30etik %10era
aldatu duela eta beraz eta Udal honek karga tasa hori %30ean finkatuta zeukanez
%10era pasako dela bestelako erabakirik hartu ezean behintzat.

...///...

...///...

- Ibilgailuen zergan KPIren igoeraren arabera igoera planteatzen da, horretarako 2000ko abuztutik 2001eko abuztura bitartekoa hartu delarik, hau da, %4ko igoera, turismoentzat 1'47 koefizientea eta gainontzeko ibilgailuentzat 1'425 koefizientea ezarriz.
- Zabor bilketaren tasan errenta txikiak dituztenentzat eta etxebizitza hutsentzat tarifa murriztuak kendu egingo dira.
- Herri bidea andamio, garabi eta edukingailuekin okupatzeagatiko tasa finkatzen da.

Une honetan Joseba Hernández Madinabeitia zinegotzia bertaratu da.

- Ur hornidura eta zabor bilketa tasetan giza talde behartsuenentzat laguntzak ematea, horretarako onartutako ordenantza baten arabera. Gaineratzen du Ordenantza hau egiterakoan Beasaingo eredia jarraitu dela.
- Gainontzean tasak KPlaren igoeraren arabera igotzea, hau da, %4ean.

Amundarain zinegotziak (EH) esaten du etxebizitza hutsentzat eta errenta txikiko unitate familiarrentzat dauden tarifa murriztuak kendu eta bestalde tasak ordaintzeko laguntzen ordenantzarekin ados daudela baina ur hornidura eta zabor bilketa tasak igo gabe mantentzea planteatzen dutela beraiek ze Lazkaon tarifa horiek oso goian daudela Gipuzkoako beste herriekin alderatuz gero. Baita ere esaten du andamio, garabi eta edukingailuekin herri bidea okupatzeagatiko tasa jartzearekin ez daudela ados.

Irastortza zinegotziak (EH) esaten du andamio, garabai eta edukingailuen kasuan, tasa jartzeak ez dutela uste lortu nahi den ondorioa lortzeko balio duenik eta agian gehiago pentsatuz beste irtenbideren bat aurkitu daitekela.

Estensoro zinegotziak (EA) esaten du gai hauek Hazienda Batzordean aztertu zirenean, han ere atera zela ura eta zaborren gaia, esaten du baita ere atzeraka goazala kostea estaltzeari dagokionean ur-hornidura eta zabor bilketari dagokionean, ze azpiegituren kanona batez ere asko igotzen ari dela. Esaten du baita ere egia dela bi tasa hauek izan direla azken urteetan gaurkotzen joan direnak eta igoera handienak izan dituztenak baina baita ere esan behar dela kostu guztiak ere hor daudela, eta ez dela egia Gipuzkoan altuenak garenik.

Irastortza zinegotziak erantzuten dio ez dutela esan Gipuzkoan altuenak gaudenik, iaz ere ez zirela altuenak eta iaz igo ez baziren aurten ere ezin direla altuenak izan. Esaten du baita ere iaz 7.ak ginela urari dagokionean eta zabor bilketari dagokionean ere altuenetakoak.

Sarriegi zinegotziak (EA) esaten du ura eta zaborretan gastatzen dena ez bada kobratu behar ea hori nork ordaindu behar duen.

Agirre zinegotziak (EH) esaten dio ea azpiegitura guztiak beren burua ordaintzen duten.

...///...



...///...

Estensoro zinegotziak esaten du datorren urterako uraren kasua eta zabor bilketarena aztertu egin beharko dela eta lokal hutsekin eta abar zer gertatzen den ere aztertu egin beharko dela.

Guzti honen ondoren, Osoko Bilkuraren onarpenera jartzen da datorren urterako ordenantza fiskalen aldaketa Alkatetzaren proposamena EHk sartutako enmendakinekin birmoldatuta. Baita ere Udaleko tasen arloan udal-laguntzak emateko ordenantza onartzea proposatzen da, ordenantza hau bere espedientean aurkitzen dena izanik.

Osoko Bilkurak, berataratutako bere 9 partaideen aldeko botuekin eta beraz legezko gehiengo osoaren aldeko botuarekin, honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- Ordenantza fiskalen aldaketa proposamena eta Udal tasetan laguntzak emateko ordenantza haserakoz onartzea.
- 2.- Aurreko puntuko akordioak jendaurreko erakustaldian jartzea 30 egunetako denboraldian.
- 3.- Jendaurreko denboraldian inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, haserako onarpenak behin betikoak bihurtzat joko dira, akordio espreso berri baten beharrik gabe.

IV.- XABIER UNANAUEREN ATXILOKETAREN AURREAN MOZIOA.-

Xabier Unanueren atxiloketaren aurrean Alkatetzak aurkeztutako mozioak honela dio:

"Joan den abuztuan Xabier Unanue Lazkaotarra atxilotua izan zelarik, zera adierazi nahi genuke:

- 1.- Xabier Unanue kargurik gabe aske geratu delako gure atsegina agertu.
- 2.- Une haietan familiak bizi izan zuenaren aurrean gure solidaritatea adierazi.
- 3.- Era honetako gertakarien aurrean gure jarrera berresten dugu:
 - a.- Berriro diogu zalantzarik gabe egiten dugula apustu ekintza politikorako bide baketsu eta demokratiko hutsak erabiltzearen alde, eta aditzera ematen dugu lehentasunezko konpromisoa dugula pertsona guztien giza eskubideen eta askatasunen defentsarekin, giza elkarbizitzaren oinarritzko eta funtsezko printzipio denez gero.
 - b.- ETari exijitzen diogu behin betiko alde batera utzi dezala indarkeria, eta euskal herritarren esku utzi ditzala geure etorkizunari buruzko erabakiak.
 - c.- Aditzera ematen dugu geure elkartasun aktiborako konpromisoa, eta beharrezko iruditzen zaigula, erakunde publikoetatik, indarkeriaren, intolerantziaren eta edozein terrorismo-motaren biktima guztien aintzat hartze etiko, sozial eta materiala lortzen lagunduko duten ekimen guztiak sakondu eta garatzea.

...///...



...///...

- d.- Eusko Legebiltzarrak lehendik euskal presoak beren famili eta giza ingurunetik gertueneko espetxeetara hurbiltzeari buruz hartutako erabakien arabera, eta Diputatuen Kongresuan aho batez onetsi zen proposamenarekin bat, Espainiako Gobernuari eskatzen diogu ekin diezaiola, indar politiko guztiekiko ahalik eta elkarrizketa zabalaren bitartez, espetxe-politikaren norabide adostu, dinami-ko eta malgu berri bati.
- e.- Indarkeriaz haratago, hori erauzteari lehentasuna eman behar baitzaio zuzenbide-estatu batek eskueran dituen baliabideen bitartez, aitortzen dugu badela izaera politiko hutseko arazo bat, Euskal Herriari eragiten diona eta bide baketsu eta demokratikoetatik aurre egin behar zaiona.
- f.- Elkarrizketaren alde gaude, elkarbizitza-arazoak konpontzeko oinarrizko tresna denez, elkar onartu eta errespetatetik eta euskal gizartearen borondatea ontzat ematetik abiatuta. Izan ere, prozesu demokratiko batean, euskal herritarren gehiengoaren borondateak, legez adierazirik, bere aplikazioa izan behar du unean-unean indarrean dagoen ordenamendu juridikoan.
- g.- Adierazten dugu onartu eta errespetatu egiten ditugula euskal herritarren nahiak orain arte eraiki dituen erakunde eta esparru juridikoak, bai eta horiek aldatu eta eguneratzeko aukeren zilegitasun demokratikoa ere.
- h.- Autogobernua sakonduz, orain arte lortu ez diren oinarrizko adostasun berriak bilatzearen alde gaude, eta konpromisoa hartzen dugu euskal gizartearen aniztasunari arrazoizko erantzun asebetegarria emango dioten topagune berriak garatzeko tresna parlamentario eta politikoak bideratzeko."

Amundarain zinegotziak (EH) gai beraren inguruan EHk aurkeztutako mozioa irakur-tzen du. Mozioak honela dio:

"XABIER UNANUE ESTENSOROREN ATXILOKETAREN AURREAN LAZKAOKO BATASU-NAK AURKEZTEN DUEN MOZIOA:

Udalbatzari:

Berriro ere, eta etenik gabeko dinamika da, sarekada polizial berri batek kolpatu du Euskal Herria. Zortzi gazte atxilotu ditu Ertzaintzak Zizurkil, Lasarte, Zaldibia eta Lazkaon, Euskadi Ta Askatasuna erakundeko militante edota laguntzaile izatearen akusaziopean.

Gauaren inpunitatean burutu ditutze atxiloketa guztiak, lekukorik gabe eta Oinarrizko Eskubide guztiak ukatzen dituen Lege Anti-Terroristapean, horrela torturatu ahal izateko inpunitatez jabetzen direlarik.

Zentzu honetan, joan den abuztuko ekimen polizialak, gatazka elikatu baino ez du egiten eta suari egurra botatzea suposatzen du.

Gertakizun larri hauek direla eta, Lazkaoko Udalbatza ondoko mozio hau onartzera gonbidatzen dugu:

...///...



...///...

- ✓ Atxilotuen senitartekoei, eta bereziki Xabier Unanueren senitartekoei, Udalbatza honek dituen baliabideak eskaintzeaz gain, elkartasun zintzoena agertzen diegu.
- ✓ Gauaren inpunitatean eta lekukorik gabe buruturiko atxiloketa basati hauek gogorki salatzearkin batera, atxilotuak jaso dituzten tratu txarrei buruzko gure kezka eta haserrea agertu.
- ✓ Inkomunikazioa eta Lege Anti-Terroristaren aplikazioa indar guztiz salatu eta gizaki orori dagozkion Oinarrizko Eskubideen errespetoa berma dezala exijitzen diogu E.A.E.ko Barne Kontseilaritzari.
- ✓ Udal honek, herri honentzat demokrazian oinarritutako konponbide baten eskaera egiten du ozenki. Euskal Herriaren Nazio izaera eta herritar guztiek emandako hitzaren errespetuan oinarrituko den bidea hain zuzen ere. Bide honetatik, bakoitzak hartzen duen determinazioaren baitan egongo da, urte luze hauetan konpondu gabe dugun gatazkaren irtenbidea."

Gaineratzen du mozio hau bestea ikusi ondoren aurkeztu dutela eta bestean gertatutakoa ez dela ia aipatu ere egiten eta Alkatetzak aurkeztu duen mozioa edozein momentutan aurkeztua izateko modukoa dela iruditu zaielako aurkeztu dutela.

Alkateak esaten du berak aurkeztu duen mozioan 3. puntua egoera orokorraren aurrean beraien jarrera zein izango litzaekeen adierazten duela baina Xabier Unanueren kasuari zuzenean lotzen zaizkion puntuak lehenengo biak izango liratekeela.

Estensoro zinegotziak (EA) gaineratzen du 3. puntua kentzeko ere prest egongo liratekeela baldin eta horrek EHk aurka ez bozkatzeko balioko balu.

Amundarain zinegotziak esaten du beraiek nahi zutena zera zela, atxilotu zuten momentuan tratu txarrak jaso zituztela eta gero kargurik gabe libre gelditu zela eta hori zela salatu nahi zutena.

Estensoro zinegotziak esaten du berak informazio nahiko zuzena daukala eta informazio horren arabera nahiko ondo tratatu zituztela.

Irastortza zinegotziak (EH) esaten du ez zaiola iruditzen tratu egokia denik bi egunetan belauniko jan behar izatea eta bere andregaiari Xabier beste batekin dabilela esanez, behar bada jo ez zituztela egingo baina tortura psikologikoa jaso zutela.

Agirre zinegotziak (EH) esaten du Alkatetzaren mozioaren lehenengo bi puntuak, kartzelan sartu balute ere hemendik 6 urtetara ateratzerakoan berdin berdin balioko lukeela.

Estensoro zinegotziak 3. puntua kentzeari buruz lehen egin duen proposameneari berretsiz galdera egiten die EHkoei.

5 minutuko errezesoa egiten da EHren eskariz.

...///...

...///...

Bilkurarekin jarraituz Amundarain zinegotziak esaten du aurka bozkatuko dutela ze beraien nahia salaketa egitearena zela.

Agirre zinegotziak esaten du ea balekoa izango litzakeen mozioa bi puntutara mugatu eta lehenengo puntua honako hau izatea: "Xabier Unanueren atxiloketaren salaketa eta kargurik gabe aske geratu delako gure atsegina agertu".

Alkateak erantzuten dio salaketetan sartzen baldin bagara dena salatu beharko litzakela eta horretan ez direla adostasunera iritsiko eta beraz ezetz.

Guzti honen ondoren bozkatu egiten da Alkatetzak aurkeztutako mozioa eta Osoko Bilkurak, aldeko 5 botu (EAJ, EA) eta aurkako 4 botuz (EH) berau onartzea erabakitzen du.

Jarraian EHk aurkeztutako mozioa bozkatzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 4 botu (EH) eta aurkako 5 botuz (EAJ, EA) berau ez onartzea erabakitzen du.

V.- EH-K PRESOEN DISPERSIOAREN INGURUAN AURKEZTUTAKO MOZIOA.-

Moziok honela dio:

"MOZIOA

Euskal Preso Politikoen aurkako dispersio politikak hamarnako heriotza eta zauritu eragin ditu. Azkenak Soaraluzeko Iñaki Saez eta Asier Heriz herritarren heriotza eragin eta Irantzu Benito larriki zaurituak utzi zituen. Hirurak, Brieva-ko kartzela bidean geratu ziren, Lurdes Txurruka herritarrarekin egotera zihoazela.

Urteak dira jada estatu espainiar eta frantziarrak euskal preso politikoen aurkako dispersioa diseinatu eta praktikan jarri zutenetik. Euskal preso politikoen eskubideak urratzeaz aparte, beraien senitarteko eta lagunentzat zigor gehigarria suposatzen duen neurri honek, Euskal Herriko gizartearen gehiengoaren, nazioarteko legeriaren eta baita espainiar eta frantziar legeriek esaten dutenaren aurka ere indarrean jarraitzen duen erabaki kriminala suposatzen du. Ehunka Euskal Herritarren eskubideak bortizki urratzen dituen neurri politiko honek, astero milaka kilometro egitera behartzen ditu presoekin une labur batean egoteko aukera besterik izaten ez duten senitarteko eta lagunak. Azken urte hauetan erabaki politiko honek eragin dituen hainbat heriotza eta larriki zaurituriko hamarka pertsonen zerrendara gehitu behar dira Iñaki eta Asierren heriotza eta Irantzu-ren zauri larriak.

Euskal Herriko gizarteak bitarteko desberdin asko erabili ditu azken urteotan, Euskal Presoen dispersioarekin bukatzea eskatuz. Gizartearen borondate hori Udalek ere azaldu dute. Euskal Herriko Udaletako ordezkariak, hainbat aldiz eskatu eta esijitu die espainiar eta frantziar gobernuei, dispersioarekin behin betikoz bukatzeko; dispersioak, preso bera eta bere ingurukoak suntsitzea beste helbururik ez duelako. Legeria guztiek ere arbuaiatua. Azken bi heriotza eta zauritu larriak horren islada mingarri bat besterik ez dira.

Espainiar eta frantziar gobernuek, Euskal Herriak -baita gure herriak ere- hainbat aldiz adierazi duen borondatea zanpatzen jarraitzen dute. PP, PSOE, RPR eta PSF-k, besteak beste, ardura zuzena dute, Euskal presoek eskubideen aurkako jardueran eta beraiena da, honek

...///...



...///...

sortzen dituen ondorioen ardura ere; herriaren hitzari uko egiten diotelako eta eskubideak zanpatzen dituztelako.

Euskal Herriak bi estatuekin duen gatazkaren konponbideari ateak itxi, eta herri honen hitzari uko eginaz, errepresioa eta bide polizial-judiziala garatzen dutenena da ardura. Euskal Presoekiko politika hori, hitzaren ukazioaren beste pausu baten gisan aztertu behar dugu. Beraz, jarrera hau duten frantziar eta espainiar Estaturen aurrean, hitzetatik ekintzetara pasatzearen beharra inoiz baino nabarmenagoa da. Egoera honen aurrean, Batasunako Udal Taldeak, Osoko Udal Batzarrari honako puntu hauek aurkeztu nahi dizkio bertan eztabaidatuak eta onartuak izan daitezen:

- 1.- Espainiar eta frantziar estatuak diseinaturiko dispertsioaren ondorioz hil diren Iñaki Saez eta Asier Heriz, eta larriki zauritua suertatu eta Irantzu Benito, mota honetako gertaeren azken protagonistak izan daitezen, Euskal presoekiko dispertsioarekin oraintxe bukatzeko esijitzen diegu frantziar eta espainiar gobernuei.
- 2.- Udal honek, inoiz baino ozenago berretsi nahi du, euskal presoekiko eskubideen aldeko eta dispertsioaren aurkako mezua. Herriaren hitza delako eta hitz hau, espainiar eta frantziar estatuak errespetatu egin behar dutelako.
- 3.- Udal honek "Euskal Herriaren Hitza eta Erabakia Errespetatu. Euskal Presoak Euskal Herriari" lempean ordu laurdeneko kontzentrazio batetarako dei egiten die herritarrei.
- 4.- Bestalde, azaroaren 10ean udal hautetsiei Soraluzen dispertsioaren aurka egingo den ekimenera dei egiten diegu.
- 5.- Europako parlamentuaren eta instantzia judizialen aurrean dispertsioaren salaketa egiteko konpromezua hartzen du udal honek.
- 6.- Erabaki honen berri frantziar eta espainiar gobernuetako lehendakariari, herria eta komunikabideei ematea.

Euskal Herrian, 2001eko irailean
BATASUNA"

Alkateak esaten du lehengo hari berdinetik erantzuna ezetzkoa izango dela. Gainera, ten du azken bi urte eta piko daramatela antzeko argudioak emanez eta ez presoekiko hurbilketaren aurka daudelako ze Osoko Bilkura honek aldeko erabakiak hartu dituela baina salatzen kotan dena salatu behar dela.

Estensoro zinegotziak (EA) esaten du bere momentuan Lizarrako akordioak eta elkarlan bat egitera eraman zituztela eta itxaropena izatera ere bai baina hura inguruan elkartzun garai bat izan zela baina berriro ere hura puskatu eta ETAK bide armatuari jarraituz, beraien ustez, bide horrek gauzak asko zaildu behar dituela denontzat.

Hernandez zinegotziak (EH) galdetzen dio ea esaten ari al den ETA dela presoak ikustera dihoazten familiartekoak aste bukaeraero errepidean bere bizitzak arriskuan jartzearen erruduna, hala Espiniako gobernuak diseinaturiko sakabanaketa politika baten ondorioa da. Esaten du baita ere Alkatezaren mozioan ez duela uste salaketa hitz bat ere azaltzen denik.

...///...

...///...

Sarriegi zinegotziak (EA) esaten dio ezinezkoa dela errealitatearen irakurketa partziala egitea. Gaineratzen du Euskal Herriaren hitza errespetatu egin behar dela mozioan jartzen duen gauza dela eta hitza osoa errespetatu behar dela ez alde batekoena bakarrik.

Irastortza zinegotziak esaten du dena ala ezer ez dinamika horretan inoiz ezingo litzakela ezer aurrera atera.

Lamy zinegotziak (EA) esaten die EHkoei norbait hiltzen dutenean salaketa eskatzen zainean beraiek hori kontestu baten barruan ikusi behar dela erantzuten dutela eta orain beraiek gertakari bat zehatz bat salatzeke eskatzen dietela aurkeztu duten mozioan. Gaineratzen du zein egoeratan gauden ere kontutan hartu behar dela.

Agirre zinegotziak (EH) galdetzen die ea zein den beraien borondatea egoera hori alda dadin. Gaineratzen du ea su eten bat ez baldin badago berdin jarraitu behar al den eta su etena beraien helburua ere badela.

Sarriegi zinegotziak erantzuten dio beraiek independentzia lortu arte beste zenbait gauza ez dituztela salatuko esaten dutenean bezala dela.

Eta eztabaida zabal baten ondoren, Osoko Bilkurak, aldeko 4 botu (EH) eta aurkako 5 botuz (EA), EA) mozioa ez onartzea erabakitzen du.

VI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Amundarain zinegotziak Maizpi baserriari buruz ea saldua izan al den galdetzen du.

Alkateak erantzuten dio berak baietz uste duela baina Udalak ez daukala hor zer ikusirik.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, gaueko zortzi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



A blue ink handwritten signature, appearing to be 'Edu', is written on the page.